

Aretxagazeta

Aretxagazeta • 2001eko otsailaren 9a • 207. zka.



Kontsumitzailearen eskubideak

Iturririk iturri: Natalio Maiztegi • Iritzia: Kepa Azkue • Kirolak: Ramon Eraña



Zainduz
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

Otsaila hasieratik
zainduz gabiltza,
eta zu?

Hargi Plaza, 6
Aretxabaleta
Tel. 658 75 80 12

**Zabalik otsaila
hasieratik.
Zatoz ikustera!**



FRUITATEGIA

Barazki
eta frutetan
espezialitatea

ERREKABARREN

ILEAPAINDEGIA

irudi
ILEAPAINKETA

IRUDI

URDAITEGIA

kalitatezko
produktuak

JUANTXO

ERREKABARREN

DROGERIA

BARRUKO
ERROPETAN
AUKERA
HAUNDIA

LEINTZ-ROSI

OINETAKO DENDA

ZAPATEN KONPONKETAK
EGITEN DIRA

MARI KARMEN

ARRANDEGIA

ITSASOKO PRODUKTUAK

MIREIA

Sekule euki dozu arazoik erosittako produktuekin? Udaletxien kontsumitzailien informaziñorako bulegue dauela, jakinien zinguzen?



**Mari karmen
Lopez de Armentia**

Behin arraindegi batien euki nauen arazo bat, baina bestela, aspaldixen ez. Zeozer entzunde badauket bulego horren inguruan.



Cesar Gonzalez

Ez dot arazoik euki. Zerbitzu horren barri badauket, eta ondo erizten dotsat. Ondo dau kontsumitzailiok nora jo geikien jakittia.



Mari Jose Sebastian

Ez. Ez nakixen herrixen hola-ko zerbitzuik zauenik. Baine hemendik aurrera arazo bat eukiz gero, bada-ki nora jo.



Josu Atxaga

Ez, sekula ez dot arazoik euki. Bai, udaletxien kontsumitzailien informaziñorako bulego bat dau. Ondo dau holako zerbitzuek egotie.

ESKUTITZAK

ondorengo telefonoetan aurkituko gaituzue:
Saretxo 943 71 26 56;
Express 943 79 23 43 edo
eta 943 79 10 51.

Saretxo kultur elkarte

SARETXOKO BAZKIDE EGITEKO DEIA

Saretxo informatika talde-ko bazkide izan gura duzuenok, eta bertako ekimendu informatikoa erabili, hona hemen egin beharrekoa. Ondoren azaltzen diren datuak Express tabernan edo eta Saretxoko buzoian utzi beharko dituzue: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, bankua eta kontu korrontea eta argazkia.

Gogoratu urteko bazkide kuota 5.000 pezetakoa dela. Elkartek antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko, barrez, 1.000 pezeta ordaindu beharko da. Laster internet ikastaroa antolatuko dugu zapa-za goizetan. Elkarteko bazkide izan beharko da bertan parte hartzeko. Edozein argibiderako

Aretxagazeta

207. zenbakia
2001eko otsailaren 9an.

Durana 11, 151 postakutxatila
ARETXABALETA
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguila, Murruxiko mendi elkarte, Zاراia mendu taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaleak:
Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia:
Eguzkigra, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: S3378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

■ LANGILE BERRIAK BAKE EPAITEGIAN Aste honetan hasi dira Maite Etxabe hernaniarra eta Prado Mota barakaldoarra Aretxabaletako udaletxean lanean. Hemendik aurrera erregistroko eta epaitegiko lan guztiak egingo dituzte. Orain arte, Xabier Mendizabalek eta Rafa Etxeandiak zuten ardura hori. Bi neska hauek Eskoriatzako udal-etxean ere lan bera egingo dute, beraz lan ordutegia bi herrion artean banaturik dute. Aretxabaletan martisen, eguen eta egua-kotx goizez egongo dira. Arratsaldez barrez, astelehen eta eguaztenetan.



Eusko Alkartasunak marko politiko berria proposatu zuen

Otsailaren lehenengo egunean aurkeztu zuen jende aurrean Iñaki Galdos, Eusko Alkartasuneko parlamentari oñatiarrak, bere alderdiak egindako txostena. "Euskal Herrirako marko politiko berri bate-rantz" horrelaxe jarri diote izena libururari. Bertan, EAK egun Euskal herriak bizi duen gatazka eta egoera politikoaz gogoeta egingo du. Baina ez dira hori geratzen, gatazka horri soluziobideak ematen ere

saiatzen dira. Txostenaren izenburuak berak dioen bezala, EAK marko politiko barri bat eraikitzeko proiektua aurkeztu du. Izan ere, beraien ustez, gaur egungo estatutua agortua dago, eta premia-kotzat jotzen dute euskaldun guztiak lekua izango dugun marko barri bat eraikitzea. EAK Euskal Herriko herri gehienetan aurkeztuko du proposamen bera ondorengo egunetan.

elkarri

BAKE KONFERENTZIAREN ALDEKO HITZALDIA

Elkarrik bake konferentziaren aldeko kanpaina bat jarri du abian. Hori dela-eta, Euskal Herriko herri desberdinetan hitzaldiak emango dituzte ondorengo egunetan. Helburua, kanpaina berria azaldu eta bide batez kolaboratzaile gehiago egitea da. Lehenengo hitzaldia, kanpainaren aurkezpen ofiziala izango dena, Bilbon emango da otsailaren 11an. Bigarrena barrez, gure herrian emango du Juanjo Perez atxabaltarrak. Hitzaldi hori otsailaren 13an emango da, arratsaldeko 19:30ean Murruxoko lokalean. Elkarrik jarritzaile ugari dauka gure herrian, horregati, bake konferentziaren aldeko kanpainan ere, partehartzetza handia egotea espero da.



LEBER GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- **Haur heziketa:**
Irakurketa-idazketa baino lehen betebeharrak oinarritzea
- **Lehen-hezkuntza:**
 - Irakurketa-idazketa maila ona lortzea
 - Antolaketa-autonomia
 - Oinarri falta-eritmo desegokia gainditzea
- **Bigarren hezkuntza:**
 - Ikas-teknikak (2 egun astean, 2-3 hilabete bitartean)
 - Errefortzua arlo desberdinetan

BAKARKAKO EDO TALDEKO LANA KASUAREN ARABERA
BAKOITZAREN BEHARRETARA EGOKITUA
GURASO ETA IRAKASLEEKIN HARREMAN ZUZENA

Basabe poligonoa, C 3 - 3º
20550 ARETXABALETA

Tel.: 943 79 56 98

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47

Jose Mari bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

**Bertako okelak
eta mortzilak**

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

IBARRA estankoa

PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77



Beba ibarrako hogeit bat lagun batu ziren Aretxabaletan egindako azken batzarrean. Orduan, eztabaidatu eta aztergai izan zituzten gaiak, aditzaren morfologia eta morfositaxia izan ziren. Batzar hauekin, Badiharduguk, Deba bailarako euskalkixan idazteko oinarritzko ortografia eta arauak zehaztu nahi ditu.

Badiharduguk herrian egindako batzarra

Badihardugu euskara elkartea Eibarren sortu zen, joan den urteko azaroaren 25ean. Elkartearen asmoa, Deba ibar osoko euskalziak batuko dituen gunea osatzea da. Azken batean, danon artean, gure herriko euskalkie bultzada ematea da helburua.

Horretarako herri baikoitzeko elkartetako kideak batzarrak egiten dituzte. Hori etetako bat, Aretxabaletan egin zuten duela hamabostbat egun. Orduan, elkarteko hogeita-

mar lagun ingururu batu ziren. Batzar horretan, mahai gainean jarritako gaiak, aditzaren morfologia eta morfositaxia izan ziren. Hala-nola hitanua- ren berreskuratziaz edo esaldiak egituratzeko formula desberdinetaz aritu ziren.

Badiharduguk jardunaldi hauetan ateratako ondorioekin, euskalkixan idazteko irizpideen behin-behineko txostena adostu nahi du. Horrez gain eta lan taldearen giro baikorrak era-

ginda, Koldo Zuazo idazle eta irakasleak liburu sakon eta mamitsua kaleratuko duela jakinerazi du. Lehenago ere, idatziak ditu euskararen inguruko hainbat liburua Koldok. Azkena, "Deba ibarrako euskeria" izan zen.

Badihardugu elkarteko kideek atzo bertan egin zuten beste batzar bat Elgoibarreko udal euskaltegian. Batzar horretan, aldaera lexikalak, lexikua, esapidiak eta berbeta berua izan zituzten hizpide.

■ **GERNIKA PLAZAKO LANAK AURKI HASIKO DIRA** Hilabete honetan hasiko dira Gernika plazako zaharberitze lanak. Urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuran, lanen ardura Grey Hound enpresari ematea erabaki zen. Plazan, gaur egun dagoen argizatzea eta eserlekuak aldatuko dira. Udalak, itxura barri bat eman gura dio gune horri eta hango exebizitza barrien inguruan espaloiak ere jarriko ditu. Horrez gain, lehenago Gipuzko plazan egin bezela, umeentzako jostailuak eta parke txiki bat jarriko da. Hori guztia egiteko udalak, 25 milioitako aurrekontu du.

■ EUSKAL PRESOEN ALDE BERTSO AFARIA

Amnistiaren batzordeak antolatuta, otsailaren 17an egingo da Urbaltz elkartean Euskal Presoen aldeko bertso afaria. Ekitaldi horretara, Unai Iturriaga eta Arkaitz Estibaldez bertsolariak gonbidatu dira. Joan gura izanez gero, oraindik denboraz zaude. Afarirako txartelak, Arlutz eta Urbaltz tabernan daude salgai. 2000 pezetaren truke, afaria eta bertso ekitaldia entzuteko aukera izango duzu.

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

BASABE

jatetxea

Tel: 943 79 91 84
Basabe bidea, z/g ARETXABALETA



■ NAGUSIEN DANTZA

TALDEA Loramendi dantza taldeak aspaltetik sortu gura zuen nagusien dantza talde bat. Orain, Aretxagazetak jakin duenez lortu du bere nahia. Joan den urte amaieran hasi ziren lehenengo dantza ensaiuak egiten. Guztira, hamasei urtetik gorako hogeit hamar dantzari alkartu dira. Guztiak emakumezkoak dira, baina mutilak ere animatu daitezten deialdia egin dute. Irakasle moduan, Loramendi dantza taldeko kide diren Aintzane Aizpurua eta Miriam Priego dabilta. Momentu hauetan, maiatzean ospatuko den euskararen egunerako dantza ekitaldia antolatzen ari dira.

Jose Mari Armentiak udal zinegotzi postua utzi du

Otsailaren 29an egindako osoko bilkuran eman zuen jakitera Jose Mari Armentiak udaletxea uzteko erabakia. Horren arrazoia, Jose Mari udal txetetik aparte egiten duen lana da. Izan ere, iaz AZK komunikazio enpresan hasi zen lanean. Orduan, bere esanetan bi lanok ondo egiteko denbora zuen. Orain barrez, AZK enpresak Xabi-

de arabako lantegiarekin elkarlanean komunikazio proiektu barri bati ekingo dio eta Jose Mari, proiektu barri horren koordinatzaile izendatu dute. Dagoeneko erabaki da beteko duen Jose Mari utzitako hutsunea, kirol saila Agurtzane Elkorok eta alkateordetza lana Pablo Txintxurretak hartuko duela aurreikusten da.



Alkateordea eta kirol zinegotzia zen Jose Mari Armentia udaletxean

■ UMEENTZAKO AISIALDE TALDEA

ABIAN Oraindik ideia bat bakarrik bada ere, lehenago Ortzadar taldeak utzitako hutsunea betetzeko asmoa dute herriko gazte batzuk. Ugutz Usandizaga, Olaia Urzelai eta Larraitz Iñurrategi ari dira burubelarri lan horretan. Dagoeneko badute lokal txiki bat eta han egiten dituzte bilerrak. Hirurak, lehenago udalekuetan begirale ibilitakoak dira, beraz, esperientziarik ez zaie falta. Beraien esanetan, gaur egun herrian ez dago umeentzako ezer eta horregatik sortu gura dute aisialdi taldea.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

Urkiola

Estudioa
Jaunartzeak
Ezkontzak
Argazki digitalekin lanak

ARGAZKI DENDA

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

HAURRAK



UMEENDAKO MODA

Lezama merkatal zentrua, 15
943 77 14 86



■ SAN BLASEKO RELIKIARI MUN

Eguraldi ederrak lagunduta, samur hurbildu zen jendea Sailluentera. Nagusi, gazte, eta ume piloa batu zen ermita kanpoan meza entzun, eta ondoren, janariak bedeinkatzera. Argazkian San Blaseko relikari mun egiten.



■ SALOIKO DANTZAK IKASTEN

Makinatxo bat lagun bildu dira, Tril emakume taldeak antolatu duen saloiko dantzen ikastaroan. Natalio Maiztegi oñatiarra da maixua, eta 15 lagun ari dira dantzak ikasten, tartean hiru mutil. Ligatzeko taktika ona ei da dantza hauek ikastea.



■ SANTA AGEDA BATZEN

Igarri da bai gurera Santa Ageda heldu dela. Etxaflero eta bonba zaratak han eta hemen entzun dira. Ohiturari jarraituz Santa Agedaren omenezko bertsoak kantatu zituzten aurtengo kintoeak.



■ ZORIONAK KEPA

A ze lagun piloa batu zen aurrekoan Kepa zorionduko duen argazkia ateratzeko. Kepak otsailaren 13an beteko ditu urteak. Argazkia Alberto Etxebarriak atera zuen, eta hainbat mediotara bidali gura da.

Lau errezeta Tril emakume taldearen eskutik

BIEIRA ETA OTARRAIN ENTSALADA, BAINILA ETA MAHATS PASA BINAGRETAREKIN

OSAGIAK:

- Letxuga mota ezberdinak
- Bieirak (2 edo 3 pertsonentzat)
- Otarrain freskoak (2 edo 3 pertsonentzat)
- Bainiladun oliba olio, pasak, ozpina eta gatza



NOLA GERTATU:

- Letxugak garbitu eta gorde.
- Bieirak zatitu eta gatza bota. Plantxan egin eta gorde.
- Otarrainak plantxan egin.
- Binagreta: osagaiak bakoitzaren gustuaren arabera nahastu. 2 edo 3 orduz utzi

AURKEZPENA:

- Plantxan gertatutako bieirak platerean jarri.
- Letxuga mota ezberdinak gainean jarri.
- Alde baten zuritutako (buztana utzi) otarrainak jarri.
- Binagretarekin ondu entsalada.

MAZAPANA

OSAGIAK:

- 150 gr almendra hautsa
- 150 gr. glas azukrea
- arrautza zuringo bat
- Limoi birrindua.
- Piñoiak eta arrautza



NOLA GERTATU:

- Osagai guztiak nahastu, arrautza eta limoia izan ezik. Eskuz pelotatxoak egin, arrautzatan buzti eta piñoiak jarri. Labean sartu 5 minutuz 180°C.

AURKEZPENA:

- Kapsulatan sartu.

LEGATZA LABEAN, KARDU ETA ALMENDRAKIN

OSAGIAK:

- Legatz solomoa
- Kardua
- Tipula
- Irina, ardo txuria eta salda
- Almendra xerratan



NOLA GERTATU:

- Legatz solomoa 4 zatitan zatitu gutxi gora-behera, gatza bota, eta oliba olioarekin eta ardo txuriarekin buzti.
- Labean sartu 5 minutuz 180°C.
- Saltsa egiteko: Kardua egosita izango dugu, eta bere salda pixkat gordeta. Tipula bat txikitu eta zartaganin gorritu, irin pixkat, ardo txuria eta salda bota eta irakiten utzi. Gatza bota eta dadotan zatitutako kardua gehitu.
- Almendra labean sartu 180°C doratu arte.

AURKEZPENA:

- Legatz zatiak platerean jarri.
- Saltsa eta karduak gainetik behera bota
- Almendrarekin apaindu.

LIMOI SORBETEA TXANPAINAREKIN

OSAGIAK:

- Limoizko bost izozki bola
- 200 ml txanpan
- Kanela hautsa



NOLA GERTATU:

- Iozkia txanpainarekin irabiatu likido geratu arte.

AURKEZPENA:

- Kopa batean atara eta kanela hautsa bota.

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79



Mobiliario ARENAZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA



G U N E A K :

HAUR HEZKUNTZA

- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (0-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)

LEHEN HEZKUNTZA

■ (6-12 urte)

- Almen
- Gazteluondo
- Sta. Teresa
- S. Viator Txiki

DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZA

■ (12-16 urte)

- Ferixalekua
- S. Viator
- Almen



Arizmendi
ikastola

BULEGO INFORMATIBOAK

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza
Ferixalekua	Arizmendi	Jose Arana-Almen
15:00-19:00	17:00-19:00	14:00-18:00
943 77 20 25	943 79 31 32	943 71 44 86

PAUSOKA HAUR ESKOLAK

2001-2002 ikasturterako izena emateko epea zabalitzen du



Euskaraz hazi eta hezi

Izen ematea: otsailaren 5etik 16ra

Goizez 10:00etatik 11:00etara

Arratsaldez 18:00etatik 19:00etara

Otik 3 urtera bitarteko haurrak talde egokitueta

ORDUTEGI ZABALA:

- Goizeko 7,30etik 18:00ak arte
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK:

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.

LOGELA

Otalora, 27 behea ARETXABALETA
943 77 03 77

Natura eritetxean

UVian ez dagoela diote baina ez zaio asko falta. Gaitza: gizakiok ekoizten dugun zabor multzoa. Sendagaia: zabor hori desagertzea edo murriztea. Eta herri xehean bizi garenon esku dagoen txertoetariko bat: zaborren birziklaketa.

Azken horrek ez du ezertarako balio! pentsatuko du jendeak. Pertsona haui batik-bat bidaltzen diet gogoe-ta hau.

Komunikabide guztietan egunero ikusten eta entzuten ari gara Ama Naturak bidaltzen dizkigun sintomak: lurrikarak, uholdeak, lehortekak, itsas mailaren igoerak...

Baina lurralde urrunetan gertatzen denez, egoera hau aldatzea gure egin-kizuna ez dela, eta gure esku ez dago-ela pentsatzen dugu. Nire ustetan oker gabiltza. Oso jarrera gurekoa da hori, eta norberari okerren bat ez ger-tatzea nahi dugun bezala, beste batzuek oker horiek jasan ez ditzaten ahalegindu behar dugu. Hau, adibi-dez, gure etxeetatik irteten diren paper, plastiko eta beira guztien birzi-klaketa eginez lor dezakegu. Hala ere, ezin dugu esan Euskal Herrian natu-rari egindako mina jasan ez dugunik. Non daude hotz eta elurrez beteriko negu horiek?. Nire burua brasildarrak bezala ikusten dut hemendik urte batzuetara, neguan, Ondarreta hon-dartzan Futboley-a jokutzen. Eta udako oporretan Norbegiara joango gara, hemengo beroa jasangaitza izango delako. Badakit "Bilbainada" bat bota dudala baina, tamalez, horre-la jokutzen dugu gizaki gehienok, istripua gertatzen ez den bitartean, edota gaitzaren sintomak ikusten ez diren bitartean, ez dugu atz bat ere mugitzen.

Beraz, nire ustetan, norberak birzi-klaketa mugimendu horri bultzadatxo bat emango balio, Ama Natura UVitik kanpo mantentzen saiatuko ginatke, munduko herrialde boteretsuen sen-dagileek, "gubernuek", sortzen dituz-ten gaitzen sendagaiak lortzen ez dituzten bitartean.

Anima zaitetze, ea herriko kaleak birziklaketarako kontenedorez bete-tzen ditugun.

Kepa AZKUE ETXETXIPIA



Okindegia - Gozotegia

Aretzabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
 Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretzabaleta
 Bertako okina

BEGIBO

optika

Loramendi, 10
 ☎ 943 79 98 21

Aretz

taberna

Markole, 5
 Tel.: 943 79 20 14

Duela 10 urte hasi zen dantza ikasten Natalio Maiztegi. Orain, guztiz profesionala da eta ikasi beharrean erakutsi egiten du oñatiar honek. Urrin joan barik, azken ikastaroa, hementxe Aretxabaletan ari da ematen.



Natalio Maiztegi Dantza irakaslea

■ Nolatan Aretxabaletan dantza erakusten?

■ Loramendi euskara elkar-teak Tril emakume taldearekin batera antolatu zuen dantza ikastaro hau. Haiek niri deitu eta horrela heldu naiz hona. Lehenago ere, esan beharra daukat Aretxabaletan izan naizela ikastaroa ematen.

■ Zein dantza erakusten duzu?

■ Danetik, balsa, salsa, mambo, merengea, paso doblea, dantza modernoa...Hori bai, Aretxabale-tako ikastaroan dauden mutilek tangoa erakusteko eskatu didate.

■ Zer behar da dantzari on bat izateko?

■ Pausuak eta dantzaren erritmoa ikasteko errez-tasuna edukitzea ona da,

baina, hori barik ere ikas daiteke. Horretaz aparte, saloiko dantzetan grazia apur bat edukitzea gomendagarria izaten da.

■ Horrelako dantzetan, nork agintzen du gehiago neskak ala mutilak?

■ Normalean mutilak mar-katzen du pausua. Bikote bakoitzean gidari bat egon behar da, gizona eta emakumeak al-tuagoak eta indartsuagoak izaten dira, beraz, lan horretarako egokiagoak dira emakumezkoak baino. Kontuan izan, gizonak emakumea altxatu behar-duela dantza batzutan.

■ Zuk hartu duzu parte horrelako dantza lehiaketaren baten?

■ Bai, Donostian ospatzen direnetan parte hartu dut gehienbat. Oso urduri jarri

arren, esperientzia polita izaten da. Gainera, sekula-ko sariak ematen dituzte. Behin cha cha cha lehiaketa batean Peñiscolarako astebeteko bidaia irabazi nuen. Iaz Elgoibarren, nik ikasle moduan nituen Arrasateko bikoteak barrez, lehenengo saria irabazi eta Cubara joan zen.

■ Ikasi bai, baina gero non praktikatu daitezke dantza horiek?

■ Arrasateko hotelera, adibidez, jende asko joaten da dantza egitera. Bestalde, Arrasaten bertan, Aterpe tabernak Kubatar taldeak ekarri eta jaialdiak antolatzen ditu noizean behin. Orain adibidez, taberna horretan salsa eta merenge gauak ospatuko dira eta ni neu ibiliko naiz animatzailer lanetan.

■ Zer moduzko ikasleak dituzu Aretxabaletan?

■ Hamabaost bat ikasle ditut, gehienak lehenago ere ibiliak dira dantzari. Horreitatik sei bakarrik dira gazteak. Aurten gainera taldean 3 mutil ditut. Orainarte ondo moldatzen dira, batzuk gainera, segituan ikasten dituzte pausak.

■ Dantza mota hauek balio dute ligatzeko?

■ Duda barik, lehenengo kontaktua behintzat dantza esakatuaz egiten da. Garai baten ere, zenbat jendek ligatu ote du "agarrarekin"!

■ Modan jarri da dantza egitea?

■ Bai gero eta jende gehiago apuntatzen da horrelako dantza ikastaroetan.



Bezero eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko sortu zen KIUB

KIUB herriko bezeroen zaindaria

Kontsumitzaileen eskubideak errespetatu daitezen sortu zen KIUB, kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoa. Aretxabaletan 1984. urtean jarri zen martxan zerbitzu hau. Ordutik, Martin Garaik bezero eta saltzailearen artean sarri sortzen diren arazoak konpontzen dihardu. Horrez gain, edozein zerbitzuri buruzko informazioa ere banatzen du bulegoan. Guztia, kontsumitzaileak bere eskubideak izan ditzan.

Ohea balio duena baino salneurri altuagoan erosi duzu. Izan ere, dendakoaren esanetan bizkarreko mina sendatzeko koltxoi berezia dauka. Gero etxera heldu eta ohea probatzerakoan, bizkarreko mina bakarrik ez, gau guztia lo egin barik

pasatu duzu. Zuk, noski, ohea berriz ere itzultzea gura duzu baina dendakoak ez du hartu gura, ez eta diru itzuli ere. Zer egin horrelako kasuetan? KIUB, kontsumitzaileen informaziorako udal bulegora joan zaitezke. Zerbitzu hau, 1984. urtean jarri zen mar-

txan, eta gaur egun, Aretxabaletan kokatua badago ere, inguruko herrietako kontsumitzaileek bertara jo dezakete. Izan ere, Gipuzkoa osoan 14 bulego bakarrik daude. Berez, 10.000 biztanletik gorako herriek izan dezakete tankera honetako bulegoa,

baina, gaur egun, Arrasate, Bergara edo Oñati bezelako herrietan ez dago kontsumitzaileentzako zerbitzurik. Horregatik, joan den urtean, Aretxabaletako bulegoan, kontsumitzaileek aurkeztutako kexa, kontsultak eta informazio eskaerak %60an gehitu dira.



Betebeharrak

Kontsumitzaileen bulegoak, bezeroari informazioa, laguntza eta orientabideak eman behar dizkio. Era berean, beste zentru publiko edo pribatuen helbideak ematera behartuta dago kontsumitzaileak horrela eskatuz gero. Horrez gain, hara heltzen diren kexa eta erreklamazio guztiak batu eta posible den neurrian kontsumitzaileak duen arazoari irtenbidea bilatzen saiatuko dira bulego honetan. Azken batean, kontsumitzaileen defentsarako eta babeserako sortu zen bulego hau 1984. urtean Aretxabaletan. Astegunetan aurkituko duzu zabalik eta kon-

tsultak, bertara joanez edo telefonoz egin daitezke. Martin Garai han izango duzu bulego orduetan.

Funtzioak

Kontsumitzailearen udal bulegoak, erreklamazio, adiskidetze, bitartekaritza eta arbitraje lanak egiten ditu. Bakoitzean erabili beharreko prozedura desberdina izaten da. Erreklamazio edo bezeroaren kexen kasuan, eskutitz zertifikatuaren bidez jartzen da jakinaren gainean zerbitzu edo dendaren jabea. Honek, era berean, bide bera erabil dezake erantzunerako. Biek, erreklamazio orriak eta testigantzak aurkez ditzakete.


Adiskidetzearen kasuan, irtenbidea bilera informazio batez konpontzen da. Bulegoan bertan informazioa eta dokumentazioa bilatu eta iradokizunak ematen zaizkie bi aldeei. Bitartekaritza borondatezko prozedura da. Kaltea eragin dionak eta kalte-tuak adostutako idazkia sinatuko dute. Eta bitartekariak, gure kasuan Martin

Garaiek, adostasun hori posible izan dadin egingo du lana. Bere jardueran Martinek, batzarrak antolatu edo gomendioak eman ditzake, baina ez bere erabakia indarrez inposatu.

Azkenik, arbitratzean, hirugarren pertsona batek emandako erabakia hartuko da kontuan, hirugarren pertsona hau gobernuko junta arbitraleko kideren bat izaten da. Pertsona horrek, argumentu eta frogak aurkeztu beharko ditu bere erabakia azaltzerako orduan. Bide hau, epaitegira joan ez daitezen erabiltzen da eta hiru hilabeteren bueltan, kasua ikusi eta irtenbidea eman beharko diote arbitratze juntakoek.

Datu orokorrak

2000.urteko datuen arabera, Aretxabaletako kontsumitzaileen udal bulegoak, 178 kasutan hartu zuen parte iaz. Informazio eskarera ez dira kontuan hartzen, izan ere, kontsulta horiek ez dute inongo lanik eskatzen eta erregistratu barik gelditzen dira.



Bestalde, 178 kontsultetatik, gehienak zerbitzu profesional, elektragailu konponketa, aseguruak, etxebizitzak eta autoen konponketen ingurukoak izan dira. Bulego horretan kexa gutxien jaso dutenak barrez, finantziario bitartekaritzak, erropa dendak, energia ekoiztu eta banatzen dutenak, zapata dendak eta oro har komertzio txikiak izan dira.

Erosi edo kontsumitu duzun edozein zerbitzu edo produkturen inguruan dudak badituzu behintza, jo ezazu lehenbailehen udal bulegora, han zure kexak argitzeaz gain, informazio guztia zure esku jarriko du Martin Garaiek.

Beharpenetan kontuan hartu beharrekoak



1.- Merkealdietan, dendako produktu guztiek ez badute beharpena, merkeagoak direnak ondo berezita ipini beharko dira.

2. Beharpenetako salneurriaz aparte, argi azaldu beharko da lehenago zuen salneurria ere.

3. Produktuaren etiketan modu egokian agertu behar dira datuak, eta produktuaren osagaiak zeintzuk diren argitu.

4. Urte guztian, dendan onartzen diren ordaintzeko moduak merkealdietan ere indarrean egongo dira.


5. Saldutakoa ez badago egoera onean, dendak produktua bueltan onartu beharko du. Beraz gorde, erositakoaren ordainagiria.

6. Elektragailuak eta horrelakoak erostean, legezkoa den garantiak indarrean segituko du merkealdian.



Futbola

Aretxabaletak Oiartzun gaititu. Xabier Zangituk sartutako gol bakarrari esker, Udako talde nagusiak garai-pena lortu zuen Oiartzunen aurka joan den asteburuan. Datorrena, berriz, kanpoan jokatu du Errenteriako Beti Ona taldearen aurka. Euskal ligako Almen-Uda taldeko jubenilek ez zuten zorte berdina izan. Azken hauek Bermeoren, liderraren etxean, jokatu zuten eta 3-0 galdu. Llodioaren aurka etxean izango dute hurrengo.



Xakea

Arlutz Ak azken partida. Arlutz Ak Iruñako Orvina taldearen aurka izango du ligako azken norgehiagoka astebukaeran. Partida erabakiorra izango da. Berdinketa lortzen badute, maila mantenduko dute, baina galduz gero, mailaz jaisteko arriskua dute. Arlutz Bk bukatu du igoera fasea, eta lehen mailara igotzeko aukera guztiak galdu ditu. Azken bi partiduetara ezin izan zuten azaldu, txoferrik ez zutelako.



Pilota

Hiru pilota txapelketa joan. Hiru pilota txapelketa jokatzen ari dira herrian: Deba arroko txapelketa, udaberriko torneo eta Euskal liga. Deba arrokoan eskoriatzarren aurka neurtu zituzten indarrak martizenean. Kadete eta jubenilek galdu egin zuten, eta nagusiek irabazi. Hurrengo aurkaria Arrasate izango dute. Euskal ligan Errasti anaiak burubelarri ari dira. Bi partidu falta zaizkie bukatzeko, eta liga irabazteko aukerak badituzte oraindik.



Igeriketa

Hastapen eta hobekuntza ikastaroak. Aretxabaletako kiroletxeak igeriketa ikastaroa antolatu du. Hastapen eta hobekuntza mailak emango dira, 20 saio guztira. Ikastaroa otsailean hasiko da, eta 19:45etik 20:30era emango da. Gutxienez zortzi pertsona egon beharko dira ikastaroa aurrera eramateko. Prezioa abonatuentzat 4.800 ptakoa da, eta gainontzekoentzat 6.400 pta. Izena emateko kiroletxera zuzendu edo eta 943 71 26 28 telefonora deitu.

Joseba Larrinagak eta Ramon Erañak Saharako maratoin hartuko dute parte otsailaren 27an. Maratoia aitzakia besterik ez da, izan ere, Argeliako kanpamenduetan dauden ume saharauiarrei laguntzea da ekimen horren helburua.

■ Zer da "Sahara Marathon"?

■ Saharauiar emakumeen batasunak antolatu du maratoin hau, eta desertuan bertan egingo da. Maratoin horren helburua, batetik, hango kanpamenduetan bizi diren ume saharauiarren beharrak munduari erakustea da, eta bestetik, ume hauei esperantza, ilusioa eta laguntasuna ematea.

■ Eta zuek zein helburukin zoazte?

■ Egia esan, maratoia aitzakia besterik ez da. Sarritan entzun izan dugu, herri saharauiak bizi duen egoera. Saharatik, euren lurraldetik bota zituzten orain 25 urte, eta orain kanpamen-

duetan bizi dira Argeliako desertuan. Gure asmoa egoera gertutik ezagutzea da, eta ahal den heinean laguntzea.

■ Laguntasun hori nola bideratuko duzue?

■ Antolatzaileek umeentzako eskolako materiala eramateko esan digute, boligrafo, koaderno, jokuak... Materiala aldean eraman behar dugunez, asko okupatzen ez duten elementuak izan beharko dute.

■ Zeintzuk dira bidaiaren nondik norakoak?

■ Konbidentzia bertako familia batean egingo dugu. Bost egun pasatuko ditugu beraiekin, eta horrek egoera gertutik ezagutzeko aukera emango digu. Hala ere, janaria hemendik eraman beharko dugu, han jateko haundirik ez dute eta.

Ramon Eraña

"Sahara marathon"ean hartuko du parte

■ Zeintzuk izango dira maratoinaren ezaugarriak?

■ Maratoin guztia egiteko asmorik ez dugu. Printzipioz 10 bat kilometro egitea da gure nahia. Desertuan bertan izango da, eta baldintzak nahiko gogorrak direla irakurri dugun arren, 10 kilometro egiteko ez dugu arazorik izango. Jakin dugunez, otsailean goizetan batez beste 2º inguruko tenperatura egiten du, arratsaldean, barrez, 10º inguru. Egunean termometroak ez du 22ºtik igotzen.

■ Gaiz aldatuz, iazko urtean oker ez banago bi proba gogor egin zenituen.

■ Bai, 50 urte betetzen nituela eta 2000. urtea ere bazela kontuan hartuta, Hiru haundiak eta Donostiako maratoia egin nituen, biak ere lehen aldiz.


■ Zein izan zen gogorra?

goa?

■ Maratoinako entrenatzea gogorragoa izan zen, baina probei dagokienez, Hiru haundiak egitea.

■ Eta aurtengo urterako zein asmo duzu?

■ Takarraran baino gehiago mendian arituko naiz, batez ere, mendi martxatan parte hartzeko asmoa dut.



UDAKO ZUZENDARITZAK ATEAK ZABALIK

Beste elkarte batzuk moduan Udako zuzendaritzak ere arazoak ditu elkarterako jende barria aurkitzeko. Hori dela eta, interesaturik egon daitezkeen herritarrek izena eman dezaten zuzendaritzak deialdia luzatu du. Epea martxoaren 31a arte egongo da zabalik. Hala ere, aurreko esperientziak ikusita zuzendaritzakoek kide barririk animatuko den esperantza gutxi dute. Gaur egungo zuzendaritzak herriko gazteak animatu gura ditu, elkarteko ardura har dezaten. Bertako kideen adierazpenetan ideia eta ekintza barriak ekarriko dituen jendea behar da.

MURRUKIXOK LEHIAKETA MARTXAN

Gure ingurua eta iragana hobeto ezagutzeko, Murruxiko mendi elkarateak hilero-hilero lehiaketa bat antolatuko du. Lehiaketa horretan bost galdera etorriko dira aldiro, gure inguruko mendi, erreka, leku berezi eta aspaldiko berbekin zerikusia dutenak. Murruxikoko lokaleko leihoan jarriko da galdera zerrenda, eta hila-beteko epea egongo da erantzuteko. Erantzun zuzena ematen dutenen artean, zozketa egingo da, eta sari politik egongo dira.

Bi atxabaltar herri saharuiarrari laguntzeko maratoira

Joseba Larrinagak eta Ramon Erañak Saharako desertuan egingo den maratoian hartuko dute parte otsailaren 27an. Hara joatearen arrazoia, hala ere, ez da maratoia bera. Izan ere, herri saharuiarraren egoera eza-gutu, eta ahal den heinean laguntzea da euren asmoa.

Horretarako hemendik hainbat materiale eramateko nahia azaldu dute. "Batez ere, umeendako, ikas-materiala eramango dugu, boligrafo, karpeta, liburu..." Han dauden bitartean, bertako familia batean egongo dira, eta hango egoera gertutik bizitzeko aukera izango dute.

Bidaiaren helburua kontuan izanda, ez dute maratoi osoa korrituko, partehartzaile bakoitzak gura duen tartea egiteko aukera baitu.

Hamar kilometro egingo dituzte. Proba desertuan izango da, ohikoetatik desberdina. Hala ere, esandako distantzia egiteko ez dute uste arazorik izango dutenik.

Saharuien egoera

Saharako emakumeen batasunak antolatu du proba hau; batetik, euren egoera mundura zabaltzeko, eta bestetik, Argeliako kanpamenduetan dauden ume saharuiarrendako laguntza lortzeko. Kanpamendu hauetan bizi diren Saharuiak, euren herritik, Saharako desertutik, aldegin behar izan zuten orain 25 urte, Marruekoek Sahara hartu zuenean. Ordutik Argeliako desertuan bizi dira, oso bizi baldintza kaskarretan.



Herri saharuiarrari laguntzeko maratoia aitzakia besterik ez da

AZKEN GRABAKETA LANAK ALPEETAN

Alberto Inurrategi eta Asier Aranguren, beste taldekide batzuekin batera udaberri aldera botako diren, dokumental sorta bat grabatzen ari dira. Hile honetan Alpeetara joango dira dokumental horren azken zatia grabatzera. Mendiko irudi batzuk grabatuko dituzte Chamonix inguruan. Albertok jakinarazi digunez, "ez da inondik inora gauza konplikatu bat izango, igoera bat filmatuko dugu, izotzetako eskalada batzuk tartean direla. Alberto eta Asierrekin batera Jon Lazkanok, Jon Belokik, eta Gotzon Arribasek osatuko dute lantaldea.

AQUAGYM IKASTAROA

Kiroletxeak aquagym ikastaroa antolatu du. Gimnasia modalitate horrek zertan datzan jakin gura duenak, saio batera doanik joateko aukera izango du. Ikastaroa emateko gutxienez zortzi lagun egon beharko dira izena emanda. Orduetgia 19:00etatik 19:30era da. 30 minutuko saioak izango dira. Izena emateko edo eta informazio gehiagorako kiroletxera edo eta 943 71 26 28 telefonora zuzendu.

TXILARRA

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrealdean)
Tel.: 943 77 13 57



RENAULT

AUKERA EZIN HOBEA



MEGANE EXPRESSION 1.6 16V 110 CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.195.000 pezeta*
13.192,22 euro*
5 auto aukeran



MEGANE COUPE RXI 1.6 16V 110CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Aluminiozko lllantak
Pintura metalizatua
SAT irratia
Alerioa
2.190.000 pezeta*
13.162,17 euro*
5 auto aukeran



SCENIC RT 1.9 DCI 105 CV

ABS, 4 aire-poltsa
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.540.000 pezeta*
15.265,71 euro*
6 auto aukeran

Orain, estra guztiak
seriekoak dira
**Ëilatuzure
izarra**



CLIO RT 1.2 3 ate

Gidariaren eta bidaiariaren aire-poltsak
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
1.350.000 pezeta*
8.113,66 euro*
7 auto aukeran



LAGUNA RXE 1.9 DCI 110CV

Klimatizagailua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Aluminiozko lllantak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
Narruzko eserlekuak
3.325.000 pezeta*
19.983,64 euro*
5 auto aukeran



SCENIC RX4 2.0 16V 140 CV

Klimatizagailua, ABS
Trakzioa lau gurpiletan
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Aluminiozko lllantak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
3.325.000 pezeta*
19.983,64 euro*
4 auto aukeran

*Prever plana barne.
Posible da modeloak eta iragarritako autoak bat ez etortzea.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA**. Tel.: 943 76 40 68


Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE**. Tel.: 943 71 24 72

Txoko berri bat dugu gure artean, *Joan-etorrian*. Murruxiko eta Zاراia mendi taldeen eskutik hainbat ibilbide kaleratu-ko dira bertan. Gure ingurua hobeto ezagutu eta naturaz gozatzeko lagunduko digute. Eta ez hori bakarrik, izan ere,

ibilbide bakoitza istorio, leku-izen, berba eta bestelako hainbat datu eta dokumentazioz osatuta etorriko baita. Lerro hauetatik ongi-etorri gure bi kolaboratzaile berriei, eta animo hartu duzuen konpromezuan.

1. IBILBIDEA ARETXABAETA-MENDIOLABURU-MANDOBIDEA-LEIXARGARATE-AITZORROTZ-ESKORIATZA-AITZORROTZ-ESKORIATZA-AITZORROTZ-ESKORIATZA-AITZORROTZ-ESKORIATZA

Luzera: 14,2 kilometro - Denbora: 3 ordu 53' (4 Km/orduko, deskantzu barik)



Aretxabaetatik (246 metro) *Mendiola* abiatuko gara. *Mendiola*-ko monumentuan, *Kurtzebarri*-ko bidea hartu, eta gorantz egingo dugu. *Ganaduaren txabola* inguruan *Uriaga baserrira* (604) doan porlanezko pista alde batera utzi, eta bide zaharra hartuko dugu. *Mendiolaburuko txabola* ikusten dugunean, (*Ortzadarra* margotua duena) *Mandobidean* sartuko gara (32'). *Mandobidea* *Leixargarateraino* (974 m.) doa. *Mendiolaburutik* laster *Puntia* gainera helduko gara, eta bertan, eskumatara dagoen ziburu bat pasa ondoren, *Puntiako tontorrera* joan gaitzke. *Tumulu* bat dago bertan. *Pista jarraituz*, pixkat gorago *Dragalekuko tontorrera* iritsiko gara.

Hemendik *Elixabarrirako bidea* har daiteke. *Aurrerago*, eskumatara *Letera* joateko bidea dago. *Leku horrek Ametsu* du izena, eta lehen iturburu bat zegoen bertan.

Bidean aurrera jarraituko dugu *Asuntzetararte*. Hemen beste tumulu bat dago, eta beherago *Asuntzeta* edo *Itsasondoko erreka*. *Puntu horretan* gorantz doan pista hartuko dugu.

Pista hau hartu eta laster *Altzartegoiti iturria* aurkituko dugu bide bertean (60').

Iturritik laster argi ibili! *Urtizarko* gainera helduan, eskumatara pista bat dago eta (eskumaldean alanbrada du, eta pista hau hartuz gero, *Markiolan* agertuko gara, *Karoiko pista*). *Gorako bidea* hartu, eta *Aizeleku* izena duen iturri bat pasa eta gero, *Mandobidearekin* bat egingo dugu. *Baina* hau ez da *Mandobidea*, beraz, gure ibilbidea jarraituko dugu.

Urtizarko gaina hartzen dugunean, pinu artetik eskumatara egingo dugu.


Pistan gora joanez gero, bide okerretik goaz, eta *Bizkarlatza* (1.132) eta *Otsoen arratia* (1.104) tartera agertuko gara, *Arlutz* ingurura.

Beraz, eskumatara pista ikusten dugunean, berori hartu behar dugu, hauxe da, hain zuzen be, *Mandobidea* (oso hondatuta dago zati luze batean).

Orain lasai hartu eta poliki-poliki abiatuko gara, eskumatara *Fraiturri* dago, eta aurrerago *Leuzarko Trangua*. *Trango* hau pasa artean jarraituko dugu, eta berehala *Aizeleku* (*Axeleku*) deritzen garbigune batera urtengo dugu, (eskumaldean dagoen maldan da *Aizeleku*).



Murruxiko mendi elkarte




Zاراia mendi taldea

Behean arkaitz bat dago, eta horren barrenean lehen esan dugun Aizelekuko iturria. Aurrerago, Arlabango barrenian, Karoitik datorren pista eta Mandobidea elkartzen dira (1:20'). Behin pista hau hartuta gorantz joko dugu, Leixargaratera iritsi arte.

Leixargaratera heltzen garenean, (974 m.), bidekurtze bat dago (1:45'). Zuzen hartzen badugu *Leixargarateko txabola* dago. Haize errotetarantz abiatuz, *Mugarriluze* (1.190). Gorantz doan pista jarraituz, bestalde, *Erlaitz* (1.128) eta *Arlutz* (1.127) mendiak. Eta eskumako pistatik abiatuz, *Makatzgain* (999), *Urdin gain edo Arriurdin* (1.007) *Urkitza* (Tumulu bat dago hemen), *Elgeamendi*, *Dorleta*, *Aitzorrotz...*

Guk pista hau hartuko dugu, eta *Pagobedeinkatuko* (1.015) iparraldeko maldatik abiatuz, *Sologaistoaren txabola* pasa eta *Irezabal gainera* helduko gara. Gain horretan Felis Beloki zenaren aldeko hilarri bat dago, gizon hau Tximista batek jota hil zen, 1901. urteko ekainaren 27an. (2:00').

Hilarria dagoen lekutik eskumara doan pista jarraituko dugu. Aldapan behera bidekurtze batera iritsiko gara



Gomitz iturria

(Leintz Gatzagara, Bolibarko Urkulura, Aitzorrotzera, Eskoriatzara, e.a. seinatzen du) (2:27). Aitzorrotzeruntz jarraituko dugu, eta laster beste hilarri bat aurkituko dugu, Miguel Zurrutuzaren oroimenezkoa hain zuzen. Mutil hau 1888ko maiatzaren 6an beste mutiko batekin burrukan ari zela, azpian zegoenak kutxiloa sartu, eta bertan hil zen 16 urterekin. Eta aurrean paregabe-ko Aitzorrotz (738).

Maiatzaren lehen domekan ospatzen da Aitzorrotzeko eguna.

Aitzorrotz uzteko ezkerrean doan pista hartu eta jarraitu lehen desbiatu garen pistarekin batu artean, puntu horretan, pistaren beste aldean iturri bat dago, *Gomitx-iturri* izenekoa. Iturri hau 1950. urteko maiatzaren 3an inauguratu eta bedekatu zen.

Bolibarrerako bidea pista horretatik behera jarraituz doa. Eta Bolibarrera heltzeaz gaudela, hemen inguruan dagoen arte ederrenetako baten azpitik pasatuko gara: *Aginako artea*. Arte horrek Agina baserrirako bidea zabaltzen



Altzarte Goiti iturria

du. Hemen eskumatik jarraituz, Bolibar auzora goaz, edo bestela, porlanezko pistatik behera Eskoriatzara. Guk porlanezko pista hartuko dugu, Eskoriatzara jaisteko (3:13'). Hemendik Atxabaltara galdu barik etorri (3:53').

*Higinio Echave Guetariari (68 urte) eta Julian Zubia Inurrategiri (65 urte) eskerak eman gura dizkiegu euren laguntza eta borondateagatik.

AITZORROTZ: HISTORIA HAUNDIKO MENDIA

Aitzorrotzen militarren gotorlekuko aztarnak ikus daitezke. Garai batean harrikaitzean tailatutako ur deposito batek, bertako militarren egarriak asetu zituen. XII. mende bukaeran, Gipuzkoa, Castillako erreinuan sartu zenean, fortifikazio hau agertzen da, Alfonso VIII.ak hartutako ondasunen artean. Eta 1369. urtean utzi zuten militarrek Aitzorrotz, nahiz eta gero hainbat gerratan, independentziakoa, Carlistetan, Gerra zibilean, barriz ere militarizatu.

Historia ixil asko daude, horma aztarnen menpe. Horien artean Gazteluko alkaidea zen D. Pedro de Mendiaren, Madalen izeneko alabaren trajediaz hitz egiten duen kondaira esaterako. Ermita bat ere aurkituko dugu hormen aztarnen barnean, *Santa Kurtz* izenekoa. Honi buruz ezagutzen den irudi agiri zaharrena 1580. urteko martxoaren 23koa da: "Ermita de Santa Cruz de Achorroz". Barruan taila zahar bat dago, eta "lignum crucis"-en erlikia bat, Turineko salesianoek emandakoa.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

Lie

LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59



Santa Agedan Santurik bai?

Santa Ageda Italiako Santa bat izan zen. Santa Ageda mutilen ohiturak, beraz, badu zeozer kurio-
soa. Emakumezko santa baten eguna izanik, betidanik gizonezkoek ospatu izan dute eta. Dena dela, jai horren jatorri zehatzik ez da ezagutzen, eta ezingo ditugu kuriosidade hauek argitu. Santuak santu, **Santa Ageda mutilak** ez dira horren santu ibili. Gaur egun Santa Ageda mutil izatea, usadioak esaten duena egiteaz gain, bonbak botatzea, basura guztiak apurtzea eta bestelako aldrebeskeriak egitea ere badela ematen du. Beti izan dute kintoek demaseko juer-gak botatzeko ohitura. Bueno hau ez dago txarto, bizitzan behin izango diren egunei etekinik haundiena ateratzea. Hala ere, egoera bere horretatik ateratzen ari dela esan daiteke. Santa Ageda mutil izateak, gura den guztia egiteko pribilegioa ematen al du? Aholkuak haizeak eramango dituen arren, norberak egin dezala bere buruaz gura duena, baina bakean dagoena bakean uztea, horixe da herritarrek eskatzen dutena.

Herrian izan dira beste-lako berriak ere. Udale-txetik hasita, **Jose Mari Armentiak** agur esan digu. Beste konpromezu batzuk suertatu zaizkio, eta zinegotzi izateari utzi egin dio. Kirol zinegotzi barria **Agurtzane Elkoro** izango da. Agurtzane kirol munduan ibilitakoa da, eta beraz, gaia ez du guztiz ezezaguna. Zorte ona biei eginbehar barrietan.

Beste kontu batzuetan ere eman dira aldaketak. ONCEko kupoiak saltzen lagun barria dugu: **Fernando Manzanal**. Kaleko hainbat txokotan ikusiko dugu kupoiak saltzen. Ea ba bere etorrerak zorte ona ematen digun, eta milioitxo batzuk ekartzan dizkigun.

Milioiak ez badira, beste batzuk ekarriko bali-tuzte hobe. Zoritzarrez hemendik urrun ditugu, baina ez gara horregatik eurekin ahazten. Datorren otsailaren 13an **Kepa Urraren** urtebetetzea izango da. Kartatxo bat idazteko aitzakia ona izan daiteke, eta anima zaitzete. Zorionak eta urte askotarako Kepa!

M. J. Armentiak



Nire aita etxeoan-drea da

Testua, Silvia Ugidos
Marrazkiak, Mikel
Valverde
Elkarlanean, 2000
(Eta zer? ; 4)

Eskolan "Nire aitaren lanbidea" izeneko idazlan bat egin behar du neskataila batek. Bere aita etxeoandrea da eta haseran denek barre egingo diote, baina idazlana irakurri eta gero denek nahiko dute neska horren aita ezagutu. Izan ere idazleak adierazi nahi du gizonek egin dezaketela gaur arte emakumeena bakarrik zen lana.

Liburu polit eta dibertigarri honek zer pentsatua eragingo dio behintzat irakurleari, topikoak apurtuz eta beti ere humorez lagundurik. Aipagarriak dira Mikel Valverderen kolorezko ilustrazio ederrak, testuarekin oso ongi lotzen direnak.

"Eta zer?" bilduma berri honetan aurkituko dituzue "Potoloa naiz", "Niri ez zait futbola gustatzen" eta "Nik erre-merre hitz egiten dut" liburuak ere. Zortzi urtetik aurrera irakurtzeko liburu sorta ederra duzue honako hau.

EUSKARA ZUZENTZEN


Hona hemen gaurko akatsa.

Galdera eta erantzun okerrak:

- Zeba hartu duzu hori?
- Zergatik nahi nuen.
- Zergatik nahi nuelako.
- Ze ba nahi nuen.

Galdera eta erantzun zuzenak:

- Zergatik egin duzu hori?
- Nahi nuelako.
- Hartu nahi nuen eta.
- Ze nahi nuen.



OTSAILA**11 DOMEKA****■ ABELAZLE ELKARTEAREN OHIKO BILKURA**

Deba Garaiko abelazle elkarteak ohiko bilkura egingo du Leintz Gatzagan. Lehen deialdia 11:30ean eta bigarrena 12:00etan Jauregi etxean.

■ SANTA AGEDA**MUTILEN DALTZALDIA**

Arratsaldeko 19:00etan herriko plazan.

13 MARTIZENA**■ ELKARRIKO HITZALDI-AURKEZPENA**

Bake konferentziaren alde hitzaldi-aurkezpena. Murrukixoko lokalean izango da 19:30ean. Hizlaria Juanjo Perez.

■ ENKARTELADA**MUGIKORRA**

Kepa Urraren urtebetetzea dela eta, enkartelada mugikorra izango da 19:30ean Mitarte plazan.

14-15**■ HITZALDIAK**

“Gure seme-alabei lan egiteko ohitura onak nola erakutsi” izenburupean bi hitzaldi antolatu ditu Kurtzebarri eskolako gurasoen taldeak. Hizlaria Iñaki Aporta izango da eta 18:30ean izango dira Kurtzebarri eskolako liburutegian.

14 EGUAZTENA**■ BIZIBUSA**

Bizi busa etorriko da Kurtzebarri eskolara. Autobus honetan kantzerraren prebentzioari buruzko hainbat gai landuko dituzte.

15 EGUENA**■ HITZALDIA**

“Presoak eta nazio erakuntza” izenburupean hitzaldia izango da udal txeh zaharreen 19:30ean. Amnistiaren aldeko batzordeak antolatuta.

17-18**■ ESKI URTEERA**

Murrukixoko mendizale elkarteak eski urteera antolatu du Luz Saint Sauver-era. Izen ematea Murrukixoko lokalean egin behar da martizenetan arratsaldeko 19:00etik 20:30era.

17 ZAPATUA**■ BERTSO AFARIA**

Unai Iturriaga eta Arkaitz Estiballez izango dira bertsolariak. Gaueko 21:15ean izango da Urbaltz elkarteetan. Txartelak salgai Arlutz eta Urbaltzen, 2000 pezetan. Epea otsailaren 11a.

18 DOMEKA**■ SANTA AGEDA**

MUTILEN DALTZALDIA
Arratsaldeko 19:00etan herriko plazan.

IKASTAROAK**■ ESKULAN ETA BAINIKA IKASTAROAK**

Loramendi euskara elkarteak eskulan eta bainika ikastaroak antolatu ditu. Lehen Rosa del Aguilak emango du martizenetan 18:00etatik 20:00etara. Bainikako irakaslea, barrez, Blanca Perea izango da eta eguaztenetan 18:00etatik 20:00etara emango da. Izena eman gura duzuenok Loramendi elkarteetan egin dezakezue.

■ PANPINAK EGITEKO IKASTAROA

Kultura sailak panpinak egiteko ikastaroa antolatu du. Otsailaren 21ean hasiko da eta eguaztenetan emango da bi txandatan kultur etxean bertan. Goizez 9:00etatik 11:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea Rosa del Aguila izango da.

BALITZARUK (Hikaz berbetan)

Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Puri Beltran de Heredia
Otsailak 4
Zure lankideen partetik. Zorionak



Ekaitz Irusta
Otsailak 5 (6 urte)
Zure aita eta ama eta familiaren partetik zorionak. Ondo pasa eguna.



Maider Elorza
Otsailak 9
Zorionak etxeko eta familiako guztien partetik. Ondo pasa eguna.



Kepa Urria
Otsailak 13
Zorionak eta urte askotarako. Atxabaltako herria.



Gotzone Guemes
Otsailak 16
Zorionak eta urte askotarako. Ondo pasa eguna. Zure lagunak.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

Txistuak • Txaloak

Udaletxean politikoak ganorazko kultur etxe bat egiteko ados jartzen ez diren bitartean, Murruxiko mendi elkarteak Durana kalean erakusketa txoko bat ipini du. Erakusketa gela horretan Urkuluri buruzko erakusketa egon zen gabonetan. Arrakasta haundia izan zuen, gainera.

Gela hau herritarren esku egongo da, hitzaldiak, erakusketak edo batzarrak egiteko, beti ere, aurrez arduradunei baimena eskatuta. Horrelako txoko baten beharra zegoen herrian. Herriko talde batek erabakiak hartu, eta herritarren beharrak asetuko dituen instalazioak egokitu daitezkeela erakutsi du. **Txaloak** herriaren alde lana egiten duten hauei.



Jaiotakoak

■ Josu Aizpurua Olabe

Urtarrilaren 30ean.

■ Xabier Alvarez Flores

Otsailaren 2an.

■ Peru Bengoa Zubizarreta

Otsailaren 3an.

Aretxabaleta	
• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.L.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11
Udaltzaingoa	
• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11
Larrialdiak	
• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00
Garraioak	
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



H 1957ko Santa Ageda mutilak

onako hau 1957. urteko Santa Ageda egunez ataratako erretratua dugu. Orduan 19-20 urte zituzten argazkiko mutilek. Akilnonean bazkaldu eta gero, argazkia atara zuten taberna kanpoan.

Santa Ageda egunez goizean-goiz jaiki, eta 6:30eko meza entzun ondoren, kantuan eta diru batzen hasten zen. Zeregin horretan fin ibili ziren erretratuko mutilak. 1000 ptatik gora batu zen, eta horrek bazkari-afari ederrak egiteko aukera eman zien. Akilnonean sopa, legatza eta tripakiak jan

zituzten esaterako, orduen-luxuzko platerra.

Bada urte hartako bestelako bitxikeriarik ere. Jose Bengoak kontatu digunez, Santa Ageda batzean bandera espainola eramateko ohitura zegoen. Hala ere, urte hartan ez zen batzean banderarik ibili. Ausart samarrak izan ziren, baina ez zuten horregatik zigorrik jaso.

Entsaioei dagokienez, gabor ostean hasita eskola nazionaletan entsaiatzen zen. Erretratuan dagoen Antton Mari Aretxaga izan zen

urte hartako maixua.

Goian ezkerretik eskumara: **Angel Etxabe, Jesus Lasagabaster, Miguel Anduaga, Juan Antonio Garai (mutiko gaztea), Jose Luis Garai, Benardino Oianguren, Txomin Otxoa, Agustin Urrutia.**

Behean ezkerretik eskumara: **Jose Bengoa, Celestino Dominguez, Antton Mari Aretxaga, Jesus Uribesalgo, Adolfo Rodriguez, Javier Galdos (mutikoa).**

Argazkia: Amagoia Lasagabaster.

Informazioa: Jose Bengoa.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

"KURTZEBARRI eskola garai berrietan" garaiak

ere...



ZATOZI!

gure
eskola eta
Hezkuntza
Proiektua
ezagutzera

MAJARRUKA ETXERA
IRAKURTZA
6tik 16ra
Otsaileraren
(9:00-12:30)
(11:30-18:00)

- ✓ Garraioa dohainik
- ✓ Jantoki zerbitzua
- ✓ Ekintza osagarriak aukeran

Haur Hezkuntza: 2tik 6ra
(2 urtekoak goiz eta arratsaldez)
Derrigorrezko Hezkuntza: 6tik 16ra



**KURTZEBARRI
ESKOLA**

